

359n. zenbakia • 2010 Apirila

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Amar agindu zartzaro zoriontsu baterako



Irakaspide
zarrenak (1.677)



Ipuin sariketa

Itzulera aintzin solasa

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2009-2010 IKASTURTEA

BIZKAIERA 42. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 423 53 22
Bilbao

42.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 423 53 22
Bilbao

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBK'ra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

Lekeitio San Marcos

Ba zan Lekeitioko San Juan Talako bazeleizean San Markoseri zuzendutako taula bat.

Jorrailleko 25 an,Santuaren jai-egunean,Meza bat ospatuten zan goizean.

Mezea amaituta bazeleiza ondoko lautadara urten ta itxasoko urak bedeinkatuten asten zan abadea.

Puntu kardinal batera begira, Ebanjelioko pasarte bat irakurten eban.

Ori egin ostean urbedeinkatuaz zirtatzen eban. Bardin egiten eban gañerako puntu kardinaletan. Irakurgaiak,baña,ezbardiñak izaten ziran,puntu kardinal bakoitzean lau Ebanjeliotatik pasarte bat aukeratuten ebalako.

Zein,zelan eta zelangoak aukeratutea, Mezaemollearen eskuetan egoten zan,beti be itxasoagaz zerikusie eukiaz.

Adibidez:	Mateonetik	8, 23-27	Iparralderako
	Markosenetik	6, 45-52	Ekialderako
	Lukasetik	5, 1-11	Egoalderako
	Juan	21,1-11	Mendealderako.

José Iñaki de Madariaga Vidal Lekeitio.IV.10
Klaudiok

Itxasoaren bedeinkapena





Fr. Maestro
de Busturia

Pedernales 19-3-1902.

Muy Fr. mío: Al salir hoy de Misa Mayor he visto a los chicos de este pueblo, que hasta ahora siempre entre sí han hablado en euzkera hablar en eidera, que no es su lengua. Como ya de hace unos días conocía el procedimiento con el que V. les obligaba a ello; he preguntado a los chicos quién de ellos tenía el anillo, y habiéndome señalado, le he pedido me lo mostrara, y tomando en mis manos el infame instrumento, que por vez primera veía delante de mis ojos, he dicho al pobre niño le declararía a V. que ya se lo había quitado. El niño se ha ido llorando, y entonces a su madre le he entregado unas peras para que se las diese porque había hablado en euzkera, substituyendo con este premio el castigo que V. pensaba imponerle.


V., señor Maestro, no tiene facultades para obligar a los niños a hablar en la calle en una lengua determinada. Vénelas V. para enseñársela el castellano en la escuela, y a ello está obligado, pero no, empleando procedimientos tan odiosos y tan indignos de pueblos cultos como es el anillo, sino otros que la pedagogía tiene y recomienda como civilizados y aun más eficaces.

No necesito invocar mi carácter de individuo de la Junta Provincial de Instrucción Pública para rogarle a V. no castigue a dicho niño por haber perdido el anillo, ni reclame a sus padres, que están ya prevenidos, el importe de éste, pues ya ve V. que no tiene él la culpa de no poseerlo.

De mi acto, yo responderé ante quien proceda.

Aprovecho la ocasión para ponerme a sus órdenes como s. s.

Sabino de Arana - Goiri



A bere tankerako arri-enborra da. "Basurdearena", bear bada.

Zin oparia izan daiteke, lurrekiko jainkoari eskeñia.

Nekazaritza ta abelgintza aldikoa, sabel azpiko disko-aren araberan.

Eguzki ta Ilargia ikusten dira arri-enborraren alde bietan.

Antziñako izar gurtzailleen lekuko da, euskaldunen siniskeriak adieraziz.

K.a. VI eta IV arteko gizaldietakoa.

Makiña bat asmaketa izan da, dalako arri-enborra, noz eta zertako sortu zan jakin gurean.


Bakarra da ipar-lurretan. Alan da be, antzekoren bat agertu leike abelgintza ta ereintza babesletza giroan..

Oraintsu Tevisa antzartokia agertu danetik, ondo asko dakigu zertarako zan, aldi aretan, animista siniskeritza.

MIKELDI ARRI-ENBORRA, kultura aldetik, BURNI ARO tartekoa dogu.

Agustin Arrien

Mikeldiko Jainko izuna



Hamar Agindu zartzaro zoriontsu baterako

1.

Apaindu egunero aurrean agertu orduko. Ondo jantzi festa batera zoazelakoan. Ez al da festa bizitza bera?

2.

Ez zaitez gorde zeure etxean, ez eta zure gelan. Ez jokatu barruti zale edo ta espetxetu baten antzera. Urten kalera eta ibilli kanpotik zear. Ur geldia usteldu egiten da ta ez dabillen makina ugertu.

3.

Zeure burua aiñean onartu soinketea. Apur bateko soinketaldia ta neurriko ibillaldia etxean bertan edo kanpoan. Nagikeriaren aurka bizkortzea.

4.

Alde egin agure- zar baten jokera ta oituretatik. Buru makur, sorbalda oker ta oñak arrastaka ,utikan ! Ikusten zaituenak,bapo! esan dagizuela.

5.

Ez eizuz aitatu zure zartzaroa ta ajeak. Alan, zaran baño zarrago ta gaxoago zagozala uste izango dozu-ta. Eta bas-tarturik geldituko zara.

6.

Gauza guztietan, alde ona ikusi. Giro txarrean , alaitsu agertu. Izan go-goetan baiezkorra, berbetan umore onekoa, kopetaz argitua ta keñuetan atsegiña. Adiña, egiñetan datza. Zartzaroa ez da urteen emaitza, barru giroaren egoera baño.

7.

Zeuretzat eta urkoarentzat lagungarri izan. Ez zara bizkarroi bat edo ta zuaitz batetik gogoz jauzitako abarra. Al dozun arte ekin eta lagundu. Irribarrez, aolkuz edo ta esku emonez on egin.

8.

Beso ta buru argiz lan egin. Jardutea, sendabide sendo-sendo da. Langintzan, ikasgintzan,artegintzan ekiteko gogoa guztiz mesedegarri dozu.

9.

Alkar artu-emon biozkoia euki. Lenengo ta bein zeure etxeokaz. Aortxe dozuz era guztietako adinekoak :ume,gazte, elduak; bizibide guztien agerbide egokia. Orren ostean urbildu zeintekez adizkideengana, beti be zu lango zarrak izan ezik.

10.

Ez uste igaro dan denbora gaurkoa baño ohea izan danik. Ez ibilli mundua ta zure egoera gaitzesten. Pozik egon zeintekez mundu onetan bizirik egon eta makiña bat gauza eder ta politak ikusi al izatea.

Egin sarritan barre, zure osasuna zainduteko.

Irakaspide zarrenak (1.677)

Itxasorako Nabegazionekoa liburua, bata, eta Abeltzaintzakoa, bestea.

Azpimarratzekoa da, liburu zarrenetarikoen artean erlijio gaidunik ez izatea, ta bai itxasoz nabegatzeari buruzkoa. Itxasontziko kapitain eta pilotoei zuzendutako ikaskizunak dagoz liburu onetan.

“Liburu au da Ixasoko Nabigacionekoa” deituriko liburua 1.677 urtean kaleratu zan. “Les voyages aventureux du capitaine Marin de Oyarzabal, habitant de Çubiburu,” prantzezez idatzita-koaren itzulpena da. 1.643 an argitaratua.

Lan au interesgarri da izkera ta idazkerari iagoken aldetik, baita euskaldun bale zaleak Terranovarentza erebiltzen zituzten bi-deen barri zeatzak emoten dauzenetik.

Beste euskerazko liburu batek, benaparreraz daukagunak, ta ez lapurdieraz, abeltzaintzari buruzko lantxua dakar, Mongo Dessançak, Be Naparroako Kimikalariak, egindakoa. (1662). Lan onetan (1692) abereen, gaitz ezagunenak, batez be idienak, ainbat sendagaiakaz batera, aurkeztuten dauz.

Be naparreraz idatzita datorkigu, an emenka, lapurdierazko esanakaz, antza danez jatorrizko eskuidazti kopiartzallen baten-gaitik.

Agustin Arrien

Adiñekoakaz Italiaren bealdetik txangolari II



2.009an Dagonillaren 25ean.

Goizeko 6,30etan jagi giñan Lourdes ata ni, 8retan, Japoniar eta Txinotarren taldeak amaituta, gure gosaria jateko.

8,30etan urten gendun, Antonio gidari zala bere-bilbus barrian, eta Erromako Urian Marko gidaria artuta, Kaizergotzazko Erroma⁴³ Zezaren etorbidetik joanda, ikertzen asi gintzazan.

Katietutako San Pedoren⁴⁴ eleizara joan giñan lenengo, eta daukan izena, San Pedro Jerusalem eta Erroman atxilotuta egon zanean, lotuta egoan katetik jatorko.

I Leon Aita Santuak, katearen muturrak alkatu ebazanean, mirariz, bat egin ziran.

Kate orreik “Autortzako” aldare barnean ikusten dira, eta eleizako sapaian⁴⁵ katearen miraria margoztuta.

Katietutako San Pedro eleiza au, II Julio Aita Santua, Kardinal izan zaneke eleiza izan zan, eta oso ospetsua da, Migel Anjelek 1.513-1.516 urte bitartean II Julio Aita Santuaren jaunillarri⁴⁶ egin ebenagaitik.

Jaunillarri orretan dago Moisesen arrigarritzko irudia, eta barre batzuk be egin genduzan, beren buruko goi aldean adar bi ikusten jakozelako.

Marko gidariak esan euskun, ez dirala adarrak argitasunezko argizpiak baiño. Dana dala, nor daki Migel Anjelek zergaitik ipini eutsezan.

Gero, Flabioren antzoki edo anfiteatrura joan giñan. Sekulako antzoki edo jolastoki ederra dana, eta euria egiten ebanean oial aundi bategaz estalduten ebena.

Flabiok antzoki edo jolastoki ori zabaldu ebanean, erriari, eun eguneko jaialdiak emon eutsezan, eta odolezko joku orreitan 2.000 gizon il ziran.

43.- Kaizergotzazko-Erroma = Roma-Imperial. / 44.- Katietuta'ko San Pedro Eleiza = “San Pietro in Vincoli”. / 45.- Sapaia = boveda.
46.- Jaun-illarri = mausoleo.

Erromatarren enparantza edo zelaia.⁴⁷

Erroma'tarren mendebala.

250 urteko aitzurketak izan bear izan ziran, enparantza onek mugatu egiten dauan guztia, argitara atarateko.

San Lorentzo ta jauretxetan dagoz, bertatik atara ziran arbiziko⁴⁸ losak.

Erroma guztian sortzen ziran garrantzizko gauza guztiak, enparantza edo zelai onetan eukiten eban oiartzuna, senatoreak, enparantza onek daukan au-zijauregian batzartzen ziralako.

Zelai onen sakratuzko etorbidetik aldatzen ziran: Erliziozko elizbirak; Garaipeneko guda lagun taldeak; Ospe aundiko gizonen eriotzazko laguntaldeak, ilten zanari gorespeneko berbak esanda. Ospatsuenetariko bat, Marko Antoniok Zezaren gaitik esan ebana, ta abar.

Eta koliseu au egin ostean, euren sasijainko omenez, bertan egiten ziran: Eskeintza aundiak, Janedaketa bitxiak⁴⁹, Terreapen edo ilketara galduak izaten ziranen odolezko-eriotzak⁵⁰, Ezpatalarien borrokak⁵¹, eta batezbe, K.a. 65'garren urtean Zesar Edilek antolatu ebana, eriotzeraiño joko orreitan 320 ezpatalarien bikoteak neurtu ziralako.

Eta ez zan ospe gitxiagokoa K.a. 45garren urtean Zezartar Juliok bere lau garaipenak ospatzeko antolatu eben janedaketa, ainbat egunetan 22.000 maila-gun egon ziralako janedaten asetu⁵² arte.

Marko gidariak esaten ebenagaitik, ni beintzat arri-tuta ibili nintzan, bere denboranlez ikusten nebalako erakusten euskun guztia.

Bertan ikusi gendun sekulako Koliseoa, bere lurazpian arrigarritzko gela banaketaregaz, eta abereak gaiñera goratzeko daukazan era bereziakaz batera.

Bere enparantzan: Neronen iruditza, Roma ta Benusen eliza edo jauretxea, Konstantinoren garaimakoa⁵³, Zezaren enparantza ta jauretxea, Augustoren enparantzako "Ara Pacis", Erromako beste kale baten erakusten dabena eta ikusi genduna, Trajano'ren enparantzan Ulpia'ren basilika edo eleiz nagusia, Trajanoren merkataritzazko gelak eta beren xixelgintzatutako zutarri edo arrimeta; Romuloren eliza edo jauretxea, Romulok eraiki eban jauregia; Erromako auzijauregia⁵⁴, Saturnoren jauretxea⁵⁵,



47.- Erroma'tarren enparantza edo zelaia = Foro Romano. / 48.- Arbiziko = marmol. / 49.- Jan-edaketa bitxi = pantagruelicos banquetes. / 50.- Terreapen edo ilketaa-galduaren odolezko-eriotzak = ejecuciones de los condenados a la pena capital. / 51.- Ezpatalarien borrokak = luchas de gladiadores. / 52.- Asetu arte = hasta saciarse. / 53.- Garai-makoa = arco-triunfal. / 54.- Auzi-jauregia = curia Romana. 55.- Saturno'ren jauretxea = templo de Saturno, o, la "saturnalia" donde todos se declaraban iguales.



Titoren garai makoa, Jerusalemeko eleizaren atalondarrak ekarrita, mako oren aurrealdean “Menorá”⁵⁶ judu argilari ederra xixelkatuta daukana, Beretersa edo Eleizandereen etxe edo jauretzea⁵⁷; Domus Aureako Zortzi zokodun gela, K.a.27-25 urte bitartean, Marko Bipsanio Agripak⁵⁸ egiteko agindu eban ikusgarritzko illarrieta edo illetxea, eta K.o. 80’ko urtean suak deuseztuta, K.o. 118-125 urte bitartean Adrianok osterera eraiki ebena.

1.926’an uste barik agertu zan Largo Argentinaren inguru sakratua, eta abar.

Kapitolioa, Kapitolinoren mendizka gainean egin da dagoena be ikusi gendun, eta bere zerikusia: Berton emoten jakielako ongi etorria gerraldi gerralditik garaipenduta etorten ziran gudal nagusiai, Jupiter jainkoari eskeintza egin eta gero.

Onak be badauka bere gertaldi bitxia, Galotarrak, Erroma indarrez artu gura ebanean, Capitolioan egon ziran antzar sakratuak euren karraskadakaz erromatar gudariak iratzarri ebezalako.

Gero, 500 urte daukan Edurraren Amabirjiñako eleizara joan giñan, eta ikusi ostean, Borghese egurasetxea⁵⁹ ikustera joan giñan.

Borghese sendi au, Sienatik agertzen da, eta ospatsua da ederlanaren laguntzaillea izateagaitik.

Borghesetar⁶⁰ Kamilo izan zan bat, gero Aita Santua egingo ebena V Paulo izenarekin, bere agintaritzan San Pedroren Eleiz- Nagusia amaitu ebena. Eta Szipione⁶¹ bere loba, Kardinala egingo ebena.

1.608-1.617 urte bitartean Szipione Kardinala izan zan lekoretze edo egurasetxe ori eraikitzea agindu ebana, eta benetan ederra da.

Munduan gaur egun oraindiño, erakustoki eza gutzen diranen artean aundiena dana, norbaiten bilkuntzaren ederlaneko margo ta iruditzen.

Bertan, Borghese’ren kapera edo otoiztokia be ikusi gendun.

Arratsaldeko ordu biak lauren gitxiagoak ziranean “La BAIA” ristorante pizzeria’ra joan gintzazan bazkaltzera, eta irurak eta laurenak ziranean, osterabere bil busera igon giñan.

Marko eta Mari Josegaz, Letran’eko San Juan eleizara joan giñan, eta goian esan dodan lez, go-

56.— Judu argilari orreri “Menorá” esaten jako. / 57.— Beretersa edo eleiz-andere’en jauretzea = templo de las vestales, o, sacerdotisas virgenes consagradas a la diosa Vesta. / 58.— Marko Bipsanio Agripa = K.a. 63-12 urte bitartean bizi zana. / 59.— Borghese eguras-etxe = villa-Borghese. / 60.— Borghese’tar kamilo, V Paulo = 1.552-1.621’eko urte bitartean bizi zana, eta Aita Santu-lez. 1.605-1.621. (61) Borghese’tar Szipione, 1.633’an il zan

goratu bear dogu 1.929'an Otsaillaren 11n Bati-
kano emen laterritu zala XIIn. Pio Aita Santua eta
Mussoliniren itun bitartez.

Europak, jaurkintzarako daukazan zoritxarreko
Laterritasun auek dira gaur, 325ean Nizeako Eleiz
Batzar Nagusian artu ziran mendetasunaren alder-
dikerizko erabagi txarrak aurrera eroaten dabenak,
eta urduritsu bizi gara edesti guztian ortik aurrera,
zorro edo zaku baten ezin diralako sartu, ain aur-
kako diran mendeko eta demokrazizko eritziak.

Iruditzen dozue, zaku orreitan txakurra ta katua
barruan sartu ezkeru zer gertatu leiken ?. Euskale-
rrian gaur, ori da sortzen jakuna.

Letraneko eleiza au da Erromako Gotzai Eleiza
edo Eleiz Nagusia eta Aita Santua bere gotzaia.

Konstantinok K.o. 313-318 urte bitartean
agindu eban eraikitea, eta Xn. Ino-
zenzio Aita Santua'k aginduta,
Borrominitar Frantzekok
antzeztu ebazan eleizak dau-
kazan bost barne⁶² aundiak
1.646-1.657 urte bitartean.

1.732-1.735 urte bitartean,
Galileitar Alessandrok egin
eutson eleizaren aurrealdea,
Kristoren irudi ederra goial-
dian daukala, eta 1.660an erdi-
ko atean ezarri eutsozan, Erromako
enparantzan egoan auzijauregiaren tupiki
edo borontzeko ateorri ederrak.

1.367'koa da Eleiza'ren erdiko eleizbarne erdian
daukan ustai- zorrotz zorrotzeko aldareetxola, eta
bertan dagozan soin gaineko erlikitegietan dagoz,
lenengo idazlanean esan neban lez, San Pedro ta
San Pablaren buruak, eta beko aldean, Aita Santu-
ak bakarrik emon leiken Meza Santuaren aldarea.

Paregabeko edertasuna dauka Letraneko eleiz
onek.

Bia Apian egon giñanean, Markok, K.a. 312an
Apio Klaudiok agindu ebala Erromatik Kapua-
raiño galtzara edo arribide au egitea, eta 300 urte
geroago Brindisiraiño egin zala, luzeran 130 km
artuta.

Gero, Trajanok aginduta, ainbat adar egin eutsoza-
la, guztiz 580 km. ko kopurura eldu ziranak, arriz
landuta egin ziran bideak.

Gero, katakunbetara edo illak lurpean illobiratzeko
egin ziran

barnebideak, bitarteko kapera edo otoiztokiak, eta
Kristau'ak aldi baten ostonduteko lekua izan zana,
ikustera joan giñan.

Leku askotan egin ziran lurpean illobiratzeko bar-
nebide onek, adibidez: Paris, Napoles, Asia Txike-
rraren ainbat Uritan, eta Afrikaren Iparraldean.

Erromakoak dira baiña, aundienak eta geien eza-
gutzen diranak.

Lurpeko zazpi metrotik asita amazortziraiño egin-
da dagoz 300 km. ko barnebide oiek, 3'50m. goial-
de eta 1'35m. zabaleran daukazela, eta

nai ta oraindiño ikerketan ibili, eu-
ren zabalkundea 250 eun area
edo ektareatan mugatu egi-
ten dira, 400 urte kopuruan,
miloi erdi baiño gorputz
geiago illobiratuta.


Gu, San Kalixto ren lur-
peko lanak ikusi genduzan,
eta bertoko gidariak esanda
jakin gendun, bide guzti orreik
illadan ipini ezkeru, 20 km'ko
luzera artuko ebela, eta oraindiño

ikerketako lanetan sakontzen dabizela, gero
ta ilbide geiago aurkitzen dabezalako.

Arratsaldeko 5'ak eta 20'ak zirala, berebilbus'era
igon giñan San Pablaren arresi ateko⁶³ eleiza ikus-
tera.

Erroman dagozan basilika edo eleiznagusien ar-
tean, San Pedorena izan ezik, bera da andiena,
eta San Pablo illobiratuta egon zan gainean eraiki
eben, gero I Konstantinok, eta Onoriok K.o. IVn.
gizaldi amaieran andiagotu egin ebena eleiza ori.

Ia osorik geratu zan ortik aurrera, areik eta 1.823an suak
geienean erre arte, eta katolikuak emon eben diruagaz
ta Mundu osoko gobernariak emon eben gaingaiñeko
arbiziakaz⁶⁴, 1.854an ostera sagaratu eben.



62.- Bost-barneak = las cinco naves que tiene la iglesia. / 63.- Arresi-ateko = extramuros. Arresi = muralla de piedra. / 64.- Gain-gaiñeko-arbizi'akaz = marmoles muy finos.



Kalostreak⁶⁵ daukazan zutabe edo arrimetatik batzuk binakatuta txirikordako⁶⁶ biurreran eginda dagoz, eta beste batzuk, erandoketako sarlanean mosaikuakin apainduta⁶⁷ dagoz.

Bertan dagoz kateak be, San Pablori ito arazi eutsotzanakaz.

Ez dago Munduan edertasun aundiagorik. Baiña jakin gura neuke, ze gogamenekin zaintzen eta zaintzekoa dan 2.800 urteko aztarnaren edesti guzti ori.

Erromatarrak euren norkerizko aunditasunean, erritarrak gosez beteta kontuan artu gabe, eta Eten bako odoljario borroketara beartuta ibili ebazanak, arduradun edo kudeatzaille txar lez⁶⁸, bereztasunezko LEGEA´ren aurka egin ziran astokeriak arro erakusteko, edo Mundu onen giza, egin bear ez dabezan gauzak erakusteko.

Erromak, zati bitan banandutako edestia erakusten dauku:

Erromatarrak, Munduko kaizertza lortu naian, basati-lez egi ebena.



65.- Kalostreak = klaustro. / 66.- txirikordako biur-eran = trezadas en espiral. / 67.- Erandoketako sar-lanean mosaikoak daukiez = tienen mosaikos en labor de incrustación. Erandoki = obra de incrustación o taracea. Sar-lanean mosaikoak daukiez = estan adornados con mosaicos, en labor de ataracea o de incrustación. / 68.- Arduradun edo kudeatzaille txar-lez = malos gestores.

Eta 2) Kristautasunagaz katoliko alderdikidetuta ekanduzko dogmaren arauz, jakituria erinduta, aurrerantzean astakeri bardiñak eginda, eta gure gaurko denboran ezeren lotsa barik, oraindiño aurrera eroaten doguna.

Ekiñaldi bien arrokeria ikusten da nunnai, lenengoena, “Arbizian egin ebezan jauregi ta oroitzarrietan. Eta bigarrena, “Aita Santu bakoitzak egin eban eleiz ta iturrietan, bakotzaren goi buru edertasun guztiaz eroaten dabena”.

Baiña gaurko lez eritzi orreitan aurrera egiten ba dogu, Berezkotasunaren LEGEak ondorioz, ia berton daukaguzan mugak amiltegi lez erakusten dauskuz, eta ez gara izango zoriontsuak, eritzi orratik ez ba gara aldentzen.

Europa n daukaguzan jaurkintzazko Laterri auek dira eritzi orren eredu, eta burura argitasun apur bat eltzen ba-jaku, len baitlen urten bear geunke okerreko bide orretataik.

Munduko gizakiak bere ugaritasunean, Munduko zabaltasuna txikertu egin daualako, nai ta nai-ez

batzangotasuneara jo bear dau, baiña ez amiltegiara eroaten dauskun Erromatar Kaizertzaren eritxizko mendekotasunean, Bereztasunezko LEGEak agintzen dauskun NORTASUNEZKO eratan baizik.

NORTASUNA ardurazkoa izanda, danok ardura-dun izan gaitezaz.

NORKERIZKO jokuan ARDURA guztiak eze-reztu egiten diralako.


Europar jaurkintzarako, beartuta daukaguzan LATERRI oneik izan dira adibide argienak: “NORTASUNEZKO ezberdintasun guztiaren ardurak euren eskuetan batuta, ez diralako gai okerreko bidetik ezik, edozein arrazoizko gauza, zuzeneko zentzutik bideratzeko.

Euskaldunak, argi ibili bear gara gauza oneitan, zuzen zuzen, EUSKAL BIOTZEAN zauritu egiten dauskulako.

**Atutxa tar Paul
Zornotzan 2.009ko Iraillaren 19an.**



I tzulera Aintzin solasa



Ameriketatik Euskal Errira txango

Aideportu bat. Sartaldeko Ameriketan. Gizon bat, txapel euskaldunak bere burua estaltzen duelarik, zain dago, egazkiña artzeko sarreretako batean.

Euskal Errian

Andik ordu batzutara. Egazkin bat ikusten degu. Egazkiñetik jaisten, gure txapelduna Loiuko Aideportuan.

Orain irurogei urte Bizkaiko erritxo batetik Ameriketara joan zen Joxe. Eta ainbeste urteren buruan izanik ere, gaur bizkaitar peto-peto bat itzuli da jaioterrira, euskaldun itxura osoa dauka. Azken aldiz ere egon zenetik, urte mordoxka bada. Orduan emaztea eta bi semetxoekin. Orain alar -

gunduta bizi da. Maritxu ere bizkaitarra zuen, eta erri berekoa. Oso jota gelditu zen gertaera larri orren ondorioz. Eta geroztik gogo gutxi izan du joan-etorrietan ibiltzeko. Eta bear bada, orregatik, nai baiña urte geiago joan zaizkio jaioterrira joan gabe.

Ameriketan, "Ranch" izeneko, edo abeletxe baten jabe da, orain bi semeen ardurapean. Abeltzaintza, beraz, bizimodu edo irabazpidea.

Bakarrrik etorri da. I ru bat illabete pasatzeko asmotan. San Juanetatik San Migeletara bitartekoa egitekotan.

Bi etxeetan, bere jaiotetxean eta emaztearenean. Ori ere erri berekoa bait zuen, leen esan dedan bezala. Emaztea zenaren aizpa bizi da, eta baita senarra ere seme alabekin, eta beraien artean ere izatea nai dute.

Eta itzulerarako seme zaarrena etorriko zaio. Ezkondua eta emaztearekin eta auen bi semelabekin, Sara eta Jon. Joxeren egonaldiaren azken amabost egunak igaroko dituzte. Elkarrekin itzultzeko berriro, Ameriketara.

I tzulera tristea izango du noski. Urtetan sartua eta osasun aldetik badauka arazo. Eta emendik aurrera txango luzeetan ainbeste ordu egazkiñean eta, ez dira Joxerentzat izango. Beraz bere sorterri maitean azkena izango duelakoaren ustetan dago. Leen esan bezala ondorengo guztiak, ain bait ditu. Eta bakoitza bere zeregiñetan "ranch" izenekoaren arduran. Ondo bizi dira, lanari gogor elduta, noski. Beraz, amerikar dira bizimoduan. Sentipenak eta biotza euskaldun. Eta gerora ere aitak baiño aukera ohea izango dute, jatorriaren ausnarketan Ameriketatik Euskal Errira txango egiteko.

Bakarrik etorri dela Joxe esan degu. Ez du ordea bakarrik egoteko betarik izango. Ainbat, famili, eta lagunen artean. Asko ez ditu aurkituko, betirako egoitzara joanik direlarik. Oraindik asko dira, ordea, bizion artean besarkatzeko aukera emango diotenak.

Gertakizun asko izango dituelakoaren ustetan dago gure Joxe, ainbeste urteren buruan berriro Euskal Errira etorrita. I zango du entzutekoa eta esan bearra. Aldaketa aundiak izan dira bitarte orretan gure Euskal Errian. Diktadura amaitu. Oitura berriak. Giro berria. Kanta berriak. Erligioan, eta politikan, aldaketak.

1. Zatia.

Lagun zaar artean:

I ritxi eta gero, urrengo asteburu orretan, omenaldia eskaini diote erritararak.

Meza Nagusia entzuten dira. Pozik dago gure Joxe, leengo abesti zaar aiek entzuten eta kantatzen, beretarren artean.

Meza amaitu da. Eta irteera. Dantzariak Arkua egin diote. Plazan dantzariak, aurrekua, eta bertsolarien saioa.

Ondoren bazkaria Jaioterrian.

Anaitasun bazkaria dute. Lagunen arteko elkarrizketa goxoa. Eta batez ere leengoak gogoan. Alako batean, bazkaldarretako bat bertsotan asi da.



Joxe lagun zaar onari

1. Amerikan bizi ta
euskaldun zintzoa,
Joxe lagun jatorra,
or dozu bertsoa.
Zuri eskaintzen dautsut
gure nai osoa,
ortan azalduko dot
Erriko gogoa.
2. Erri txiki bat gara,
baita ere aundi;
gure euskera dogu
senaren durundi.
Gure ots eder ori
danetarik gaindi,
geroaren joanean
orrela izan bedi.
3. Egunaren argia
biurtzen yaku gau;
denborak egiten dau
egunoro arau.
Eta euskerarenak
gurpil ortan dirau,
ortxe millaka urtez,
arrigarri, bai, au!
4. Egia da bai ere,
esan bear umil,
leen distiratsua zan,
gaur agian zurbil.
Erasoturik gogor
nolabait or dabil ...
Zaindu dagigun danok,
ez dagiguten il.
5. Euskal Erri maite au,
ain dogu xamurra!
Jarrai begi izaten
euskeraren lurra.
Ori bait dogu emen
nortasun ikurra,
biotzez zuri JOXE,
bertsotan agurra!

Eta bukatu orduko, Joxek, berak,
orrela ekin dio:

Gure nortasuna

1. Nortasunari eusten,
zenbat dogu jasan!
Norena dan errua?
nai neuke nik esan.
Eskola inguruan
garai txarrik bazan,
guraoen izkuntza
isillean plazan,
erdi lotsati eta
bekatari gisan.
 2. Gure izkuntza onek
nolakoa eskola?
Txorien gisan ortxe
ba eban kaiola.
Euskera galtzearren,
eta bost ajola!
Aldatz pikuan beti
bere ikastola,
ala ere gaur zutik
daukagu arbola.
 3. Euskeraren babesa
eta eusgarria,
familia, eliza
eta baserria.
Uztarturik egozan,
ura zan Erria!
Sitsak zulatu dausku
gure uztarria,
bananduak gabiltza,
au da mingarria!
- Ondoren txalo zaparrada jaso du
Joxek. Unkiturik utzi ditu errita-
rrak, ainbeste urtetan zear erritik
kanpora, eta zer nolako sentiberata-
suna agertu duen ikusiz!

Eguna joan, eguna etorri, egonaldi goxo orretan gure Joxe.

Txango batzuk ere egiñak ditu, gure inditarrak, bere "Ranch"-etik urrun, jaioterrian, Euskal Errian. Arantzazura, Urkiolara. Begoñara.

Guggenheim Museo ospetsua ikustera era joan bear izan du. Berak ordean dio, leengoekin topo egiten duenean berriro, biotza lertzen zaiola, nolabait esateko. Ainbeste maite du bere jaioterria !!!

Gure Joxeri, geroztik, egun gozoak joan zaizkio, an eta emen, uste baiño leen pasa zaizkio egunak, eta San Migeletan gera.

Errian pestaburu.

Bere "Ranch" -era itzulitakoan, emengo gertakarien berri, an izango degu jakiteko aukera, beretarrei azaltzen.

Eta Ameriketara , Berriro, I tzulera Prestatzen Asi Bear.

Berriro anaitasun bazkaria.

Eta bukaeran. Agur berriro ain maite duen Euskal Erriari :

Eta malkoei ezin eutsiz:

- "Agur erritarrok. Eskerrik asko agertu daustazuen maitasunagaitik"

Oraingo bazkarian, seme zaarrena, orren emaztea eta bi billobatxo ondoan ditu.

Eta iritxi zaio egun tristea. Berriro Ameriketara. Malko sendoak. Baiña familia an du. Bi seme ezkonduak, erraiñak eta lau billobatxo. Eta ezin bestelakoa zaio beraien artean bizitzea, eta beraz, mundu ontako azken urteak an igarotzea. Azken batean, bizimoduak agintzen bait du.

2. Zatia.

Ni Gazetari Naizen Aldetik, Lan Bat Eskatu Ditate, "Euskaldunak Amerikan" I zenburua I zango Duena Eta Beraiekin Ameriketara Joateko Erabakia Artu Det, Eta Emango Dizuet Ango Berri. Ara:

Lenengoz, Joxe-ren berri berriro emango dizuet. Oraingoan Ameriketara. Familikoekin. Eta bazkalt-

zen ari direla, Euskalerriko berriak ematen. Nolakoa aurkitu duen giroa. Aldaketak. Eta bitxikeriak.

Joxek onela dio:

- Bizimodua ohea da, orain kinka larria bizi badabe ere beste toki askotan lez. Ni eta ni lezko beste batzuk alde egin genduan oso bestelakoa zan baserrian. Lanean madarikatuta eta xentimo bat ere ez genduan aurrezten. Ala ere bizipoza aundia-gorekin ez dakit ez ete gintzazan bizi.....

- Erligio aldetik ere, oso bestelakoa aurkitu dot angoa. Oso gazte gitxi agertzen da elizara, eta garai bateko familiaren oiturak eta bizimodua aldatzen doaz.

- Euskera batua bear zala eta, gure bizkaiera zearo baztertutik aurkitu dot, ikastoletan, gazetaritzan, irratan eta telebistan. Negargarria benetan!!!

- Txapelarena. Esango dautsuet jarraiean. Uri-burura joan eta batek baiño geiagok irriparreren bat, edo, nere txapela zala eta. Baita begiratu zorrotzak ere. Au dot arraioa! Begirunez agurtu nindutenak ere izan nebazan. Ori ere esan bearra dago egiari zor zaionez gero. Eta au ere bitxia, txapel gutxi ikustearena. Euskaldunak ere ikusi bait nebazan erdaldunen "gorra" jantzita. Bereaz lotsatuta, edo?

- Eusko Jaurlaritzan aldaketa. Oraingoan ez da izango abertzalea. Gezurra badirudi be, garai batean kanpotarrak sortutako alderdiak, obeto esanik, bi alderdik, Madriden etsai eta Euskalerrrian lagun diranak, osatu dabe geiengoa. Zer nolako ondorioa izango ete daben aldaketak, denpora izango da lekuko.....

Orrelaxe amaitu ditu, oraingo, gure Joxek esan bearrekoak. Gero ere beste zer bait adieraziko dabela esanez.

Eta era orretan doa Ameriketako Joxeren etxean, bazkal ondorea. Euskeraz ari dira danak, eta aita zaarrari izan ezik, denei ingelesaren kutsua darie, zorionez orde euskeraz eta gaiñera bizkaieraz. Eta orain Euskal Erriko kanta zaar bat denen aotan. Eta kanta, ara, I parragirrerena:

“Gernikako arbola, da bedeinkatua,/ euskaldunen artean guztiz maitatua. Eman ta zabal zazu, munduan frutua,/ adoratzen zaitugu, arbola santua”.

Gero bakarlaria, Joxe bera:

“Gernikako arbola, iartu da orra./ besterik gauzarik ez dau, azala ta egurra. /Orri azpiko zana jan zion xatorra,/ ori ez zan izango euskaldun jatorra... Ori ez zan izango, euskaldun jatorra.”

Bukatu duelakoan, ez ordea! Berriro gure Joxe zaarra, Euskal Errian izan eta gero, biotz ondotik unkiturik, onela dio: Pello Mari Otañoren bertso batzuk kantatuz. Ori ere dakigun bezala, Ameriketara egon bait zen. Bizi eta il ere an. Beraz ura bezala, sorterrimiñez bizitua degu gure Joxe ere.

Onela dio Joxek, “Zazpiak bat” izeneko Pello Mari Otañoren bertsoak kantatuz:

-“Zazpi aizparen gai dan oyala/ ebakirikan erditik, / alde bate-ra iru soñeko/ utzirikan, lau bestetik/ Guraiziekin berezi arren/ bakoitza bere aldetik/ ezagutzen da jantzi dirala/ zazpiak oyal batetik”.

-“Oyaltzat artu dezagun euskera/ guraizitzat Bidasoa.../ I bai koxkor bat besterik ez da;/ utsa balitz itsasoa. / Elkarren urbil daude zazpiak/ muga deitzen da “Pausoa”./ Zergatik izan bear ez degu famili bakar osoa?”

-Nik ala ere famili maitea esango dautsuet, dio Joxek jarraian, Pello Mari Otañoren bertsoan nik azaldutako burutapenak, ez dirala neuretzat politika, nire ustez, nortasunaren ager naia baizik, orrek oster, euskaldunontzat aspaldidanik oztopo aundiak izan dauz.

Eta testua bere testu inguruan:

-Onako auexek entzun aal izaten ei ziran garai batean, orain eun urte inguru, edo, Bilbaon bertan: Arenalean, musikariak Gernikako Arbola jotzen ari zirala.¡ Mueran los vascos! ¡ Muera Bizkaia! entzun ei ziran “Patria” izeneko aldizkariak zekarrenez. Orrela dio Pedro Balsalduak bere liburuetao batean. Joan zaitez oriek etorri ziran errietako batera, txapela jantzita txistua jotzera.....

Gero elkarrizketa goxoan murgildurik familia, orduak aurrera dijoaz.

Eta Joxe-ren “Ranch”-eko kanpoaldean, illunabarra, eta Euskal Errian gertatzen denaren antzera, emen ere, Ameriketara gaurkoari dagokionez,” goiz gorri.....arratsean euri”.

ETA ORRELA, EMENTXE AMA I TU DET N I RE GAURKO JARDUNA, EUSKAL ERR I AN AS I ETA AMER I KETAN BUKATU. AGUR I RAKURLE, ONG I I ZAN.

“Zabalartek”

Bilbao-ko ,Euskerazaleak Alkartea antolatua
2009ko Ipuin Sariketarako.



Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



Ikasten

Sudoku

6							9	
4		1		3		7		5
	2			5				8
3							1	2
			5		9			
1	5							6
8				7			2	
7		6		4		8		1
	3							4

4	7	6	8	6	1	2	3	5
7	9	6	2	4	3	8	5	1
8	1	4	6	7	5	3	2	1
1	5	7	3	2	4	9	8	6
2	6	8	5	1	9	6	8	5
3	4	9	8	6	7	5	1	2
9	2	3	7	5	6	1	4	8
4	8	1	9	3	2	7	6	5
6	7	5	4	8	1	2	9	3

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar


..... kalean (auzoan)..... zenbakian

..... errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzekodiru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Ikusi mendizaleak baso eta zelaiak.
Mendi tontor gañera igon bear dogu.
Ez nekeak ez ta bide txarrak, gora gora,
Neska mutillak, a, a, a,...
Gu euskaldunak gara.
Euskalerrikoak

Emen mendi tontorrean euskal lurren artean,
begiak zabaldurik, biotza erretan.
Ain ederra, ain polita da ta.
Gora, gora euskalerria, a, a, a...
Gu euskaldunak gara, euskalerrikoak

Gorbeiako gurutzea